

Kaixo Familiak!

Proposamen hau Émile Jaudoulen “Otsoa dator!” ipuinaren jarraipena da. Ipuin hau hurrei asko gustatzen zaienez, pertsonaien bidez bizia eman diezaiokegu eta horrela, umeei ukitu eta mugituko dituzte guk ipuina kontatzen dugun bitartean.

Pertsonaiak egiteko, marrazkiak ematen dizkizuegu. Gainera, umeei egin ditzakezue eta umeei parte hartzeko, etxearen teilatua hatzez margotu dezakete, adibidez.

Zuek ongi pasatzea espero dugu.

Laster arte!

#### PRESTAKETA

1. Kartoia (zapata kutxarena, zerealen kutxarena...), guraizeak, itsasgarria eta margoak behar ditugu.
2. Pertsonaiak zuzenean folio batean marraztu eta margotu ditzakegu, edo bestela, inprimatu. Guk DIN-A4 orri batean egin ditugu.
3. Irudiak moztuko ditugu eta sendotasuna emateko, kartoian itsasiko ditugu.
4. Hobeto erabili ahal izateko, makiltxo batean itsatsiko ditugu. Makiltxo hori lastotxo bat, txitxi-burruntzi egiteko makiltxo bat edo txinatar janaria jateko makiltxo bat izan daiteke, baita kartoi gogorreko tira ere.

Ongi pasa!

